



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **IRAGARKIA**

2022ko urriaren 24ko Alkatetza Dekretu bidez honakoa onartu da:

**LEHENA.-** Azkoitiko udalak, UROLA EKITEN VIII proiektuaren eta EKOBAILARA X azpi-proiektuaren baitan, enplegua sustatzeko (1. motako jarduera), bigarrenengo fasean, 2 balio anitzeko peoi (biak 6 hilabeterako eta %100 lanaldian) – kontratatzeko **deialdia** egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera.

**BIGARRENA.-** Hautagaiak bete beharreko baldintzak eta lanpostuen ezaugarriak jasotzen dituen dokumentua onartzea, ebazpen honi eranstean zaizkionak.

**HIRUGARRENA.-** Deialdiari dagokion zabalkundea ematea, Udaleko web orrian lan eskaintza atalean, berrien atalean, komunikabide desberdinetan eta *Urolanprest*-en, **betiere enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko diru-laguntzen deialdia onartzen duen 2022ko maiatzaren 13ko ebazpenaren 13. artikulua xedaturikoa betez; zera, diru-laguntza jasoko duten erakunde onuradunek espresuki adierazi beharko dutela kontratazio horiek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela.**

**LAUGARRENA.-** Hautagaien zerrenda, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez osatuko da, erakunde horrek egingo duen aurre-hautaketa, ezarritako ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuz.

**BOSGARRENA.-** Aurre-hautaketa eginda, udalak dagokion hautaketa egingo du, horretarako ondoko Epaimahai kalifikatzailea eratuko delarik:

- Epaimahaiburua: Kontratazio eta Pertsonaleko A.O.T.
- Epaimahaikideak:
  1. Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Garapen Iraunkorra Saileko teknikari bat.
  2. Ongizate Saileko teknikari bat.
  3. Lantaldeko Arduraduna.
  4. Kontu-hartzailea edo Kontu-hartzaitzako teknikari bat.
- Epaimahaiko Idazkaria: Idazkaritza Saileko Erdi mailako Teknikaria

\*\*\*\*Deialdiaren oinarrietan xedaturikoaren arabera, hautaketa prozesuan, Epaimahaikideen artean, gutxienez emakume bat egon beharko dela xedatzen du.

**SEIGARRENA.-** Erabaki honen berri Kontu-hartzaitza sailari ematea.

ALKATEAK,